






BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko ekainaren 14a. 38. zenbakia. Dohain banatzen da.



Sanjuanak Andoainen

PUBLI- ZI- TATEA

ESKU LANAK

PUNTUZ PUNTU

Puntu - Kruzean
espezializatutako denda

- Hariak • Ehunak
- Grafikoak • Kit-ak
- Petit-point
- Gantxiloa

Zumalakarregi, 7
TOLOSA
☎ 65 28 81



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

Joxe Ramon

TABERNA

PINTXO EDERRAK !!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

ITAMAR

Nagusia 28 - ☎ 69 39 31 - BILLABONA

OPARIAK - BITXIAK - MODA

SOLARIUM ZERBITZUA

ZURE AZALA PREST UDARAKO

AURRERA

TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

ALFARO

JATETXEA

EGUNEROKO MENUA

Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**



ALOTZ

IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN



ILEAPAINDEGIA

GARBINE

Bulantegi kalea 13 - 3ºD
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Txomin Garmendia: "Udara!"
2. **GALDEZKA.**
Eta zuk, idazten al duzu gutunik?
3. **ADUNA.**
Baserrietako bideak konponduko dituzte.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Buruntzako ustiapenari emendakinak.
Ama Kandida, herriko alaba kuttun.
23 ikasle kaleratuta.
7. **ASTEASU.**
Kantu afari arrakastatsua
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Behar-Zana elkartearen 50. urteurrena.
Bertso eta ipuin lehiaketa.
10. **ZIZURKIL.**
Hiru zizurkildar eskolarteko bertso txapelketan.
11. **ENPRESA.**
Asteasu-Billabona: Ogi Zuri-Ogi Goxo.
- 12-13. **SAN JUANAK ANDOAINEN.**
Buruhandi eta erraldoien konpartsa berria.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Billabona: Mintzalagunak.
- 16-17. **KULTURA.**
Teodoro Mujika: Errekaldeko intxaurren itzela.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal.
Maketatzailea: Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oizartzabal
Argazkiak: Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro
Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu
Administratzaile-eragilea: Xabier Irisarri.
Inprimategia: Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 11354-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



UDARA!



TXOMIN GARMENDIA

Maiztaren azken egunetan ari naiz idazten eta udara gainean degula esan bear. Pozik asko ekartzen digun urte sasoi noski, baiña bai buruausteak ere. Urteko Jaiak bidean dirala-ta, pesta on batzuk nola jarri Udaletxe. Alkarte eta gazte taldeak ibilliko dira, auzer antolatuak ez badituzte beintzat. Alkarrekin ondo konpontzen badira gaitzerdi!

Garai batean etzan gaur bezela dirurik Udaletxe eta abarretan, ala ere, pestak antolatzen gaur baiño lan errezagoa izaten zan. Eri txikietan beintzat, txistularia, atabalerokain eta soinuñole bat izan ezker, etzan besteren bearrik. Gaztedia eta gainontzekoak ere bai, gaur baiño askoz geiago gozatuko ziran gainera. Orduko dantza gosea arrigarrria zan eta norberak jartzen zan pesta. Tabernatan berri, ustegabean gertatuko ziran bertsolariak, kantariak eta mila zelebkereri.

Gaur danetatik aseta bizi geran ontan, zer pesta jarri? Urte batzuetara irixitako jende asko, gaur pestara joaten ez baiño pestatik iges egien ikusten degu; ez da gutxiagotarako gertatzen dena gertatuz.

Eri askotako plazak ikusita poza baiño geiago tristura sartzen zait; ainbeste diru kostatuko musika taldea soinu jotzen eta dozenardi bat umetxo bakarrik saltoka.

Auzer nion bezela, gaur ainbat diru etzan arren etse barruko pesta ere ederra izaten zan. Nun dira orduko garbantzuak eta oillaskoak ematen zizkiguten gozamen aiek? Aurrerapen nabermenak eskuratu ditugu, baiña bai atzerapenak ere. Nolaz ulertu leike bestela, gaurko gazte jendeak daukan aspertze edo ajolagabetze ori? Nun ote dago, sermoilari kanpotarra zalako. Meza Nagusira pozik joaten zan gaztedi ura?

Ez det esango, gaztedi guztia galdua dagonik, ezta gutxiagorik ere; baiña ikusten diranak ikusiz, bat-batean beintzat auxe bururatzen zaitgu: akabo gure Euskalerrria!

Uda garaiak ekartzen digun beste arazo bat, oporretan degu. Gaurko bizimoduan, inoiz baiño premizkoagoa degu noski oporretara joatea; baiña ortan ere neurritik pasata gabiltzala esango nuke. Besteak edo auzokoak dijoaztelako urrutietara, ez gaitzen gu ere abiatu, zake-lak ez badigu agintzen beintzat. Eta zenbat orrelako?

Donostiar batek auxe esan omen izen bere lagunairi udara batean: "Biatirik oporrek dizkiat eta otel batean artu diat lo egiteko lekua eta abar; eta ondo pasa bear diat. Beti lanean ezin ibilliko gaituk". Lagun aiek usteko zuten artista ori urrutiren batera zijoala; eta or nun ikusten duten andik bi egunera berriro Donosti'ko kaleetan. Batek arriturik: "Ezuden-ba esan oporretara ijoala, otela artu uala eta abar?". Erantzuna: "Ni nagon otela, emendik agei metrotara zegok eta andik kampora berri, etzegok au bezelakorik munduan". Arrazoi galanta eman zula esan bear.

Izan ere, gure itsas-bazterrak, jan-eran egiteko lekuak eta abar, nun emen bezelakorik? Lotan atsedentzeko ere, nun au baiño oherik? Eguzkiarekin ez daukagulako segurantziz geieginik? Azkenerako ez al gera jartzen eguzkiz aspertuta ere?

Azken alditan, bertako jende asko ikusten degu Donosti'n, Zarautz'en eta inguruan udaldia igarotzen. Bagendun garaiia etxean bertan zer daukagun konturatzeko!

Udara bete-betea emen degu aseran nion bezela; baiñan buru pisika batekin egin ditzagun gure ametsak. Oporran bidez, ondorenean aldapa latza izatekotan merezi al du oporretara joatea? Udara on bat izan dezagula danok eta geure gogoko santuren bati ere bitartekotza eskatzeak ez digu kalterik egingo.



Aldizkari honek Eusko Jaureritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jasotzen du.

ETA ZUK, IDAZTEN AL DUZU GUTUNIK?

Eguberrietan, udako oporretan, urtebetez-zeetan eta beste data seinalatu gutxi batzuetan oraindik ere badago gutunak idazteko ohitura. Egun horietan ez bada ordea, jasotako erantzunen arabera behintzat, ez da ia gutunik idazten, eta ondorioz, jaso ere ez dira egiten. Gazte-

txoek hala ere, edadekoek baino gehixeago idazten dutela iruditzen zaigu. Eta normalean, urrutiko lagun edo senitartekoren batekin harremanetan jartzeko telefonoa erabiltzen da batez ere. Zuk ere berdin egiten al duzu?, edota eskutitzak idazteko ohitura daukazu?



M. Carmen Sánchez, erizaina. Asteasu.

Gutun gutxi idazten dut orain; bi edo hiru lagunek bidaltzen dizkiogu elkarriz gutunak. Eguberrietan idazten ditut eskutitzak; udan berriz, telefonoa erabiltzen dut. Gaur egun *curriculum*-ak bidaltzeko idazten ditut gutunak batez ere.



Amaia Díez, ikaslea. Andoain.

Eskolan Oiartzungo beste ikasle batzuekin daukagu harremana, eta bertako ikastolako ikasle bati idazten diot. Gutunak helburua lagunak egitea da. Orain dela gutxi bertan izan ginen, eta aurrez aurre ikusita ezagutzeko aukera izan nuen. Irakasleen proposamena izan zen. Jaso berriz, bere gutunak baino ez ditut jasotzen.



Ion Ander Garmendia, ikaslea. Zizurkil.

Ez, ez asko. Oporretara joaten naizenean aiton-amonai idazten diet, lagunei gutxitan. Eskutitzak jasotzea gustatzen zait, eta eskolan Jugoslaviako haurren gutunak jasotzen ditugu. Marrazkiak ere bidaltzen dizkigute.



Ainitze Aburuza, ikaslea. Aduna.

Oporretara joaten garenean lagunei idazten diet, baina ez dut idazteko ohitura handirik. Ahizpak laguntzen dit gutunak idazten. Besteek neri eskutitzak bidaltzea berriz, asko gustatzen zait.



Enri Núñez, etxekoandrea. Andoain.

Ez dut idazten. Orain dela urte batzuk bat edo beste idatzi nuen, baina oso gutxi, eta beti familiari, kanpoan bizi diren osaba-izebei. Gaur egun telefonoa erabiltzen dut horrelakoetan. Jaso ere, ez dut gutunik jasotzen.



Garikoitz Etxeberria, ikaslea. Billabona.

Bai idazten dut, baina gutxi. Jaso ordea, lehengusuenak eta senideenak jasotzen ditut, oporretan batez ere. Eskutitz gehiago jasotzea gustatuko litzaidake.

BASERRIETAKO BIDEAK KONPONDUKO DITUZTE

Aurten eta datorren urtean egingo dituzte lanak

Hamabost urte igaro dira baserrietako bideak konpondu zituztenetik. Beraz, bideak nahikoa hondatuta daude egun, eta erabat hondatu aurretik konpondu nahi dituzte. Aurrekontua onartu eta lanak egin behar dituen enpresa aukeratu ondoren hasiko dira bideak konpontzen, eta urte honetan hasi eta datorren urtean amaituko dute lana.

Bost kilometro inguru dira konpondu beharreko bide guztiek batera neurtzen dutena. Bideak asfaltatu, bihurguneak konpondu, eta erreten batzuk egingo dituzte, besteak beste. Bi kotxe batera pasa ahal izateko bide tarte estu batzuk ere zabalduko dituzte. Hogeita hamar milioiko aurrekontua beharko dute horretarako, eta esan bezala, aurten hasi eta datorren urtean amaituko dituzte lanak: aurten, Goi-buruko bideak konponduko dituzte, eta datorren urtean berriz, Iardi eta El-barrena auzokoak.



15urte igaro dira azkenekoz konpondu zituztenetik


MARRAZKI ETA ARGAZKI LEHIAKETA

Jaietako egitarauaren azala osatuko dute irabazleen lanek

Adunako herritarrek jaietako egitarauaren azala irudikatzeke aukera dute. Horretarako marrazki bat edota argazki bat aurkeztu behar dute udaletxean ekainaren 30a baino lehen. Sari onak emango zaizkie irabazleei, eta gainera, egitarauaren azalean agertuko dira marrazki edota argazki irabazleak.

“Aduna gure herria festa giroan” da marrazki eta argazkiek islatu behar duten gaia. Beraz, Adunako jaietako azala egiteko lanak izango direnez, ekainaren azken egunerako udaletxean aurkeztu behar dira lanak gutunazal itxi batean. Gainera, lan guztiak ikusteko erakusketa antolatuko dute.

Hiru maila ezberdinetan banatu dute lehiaketa: lehenengo maila, hamar urtez beherako haurrek osatuko dute; bigarrena berriz, hamar urtetik hamalau urte bitarteko gaztetxoek; hirugarren maila aldiz, hamabost urtez gorako guztiek. Sariak ere ez dira berdinak izango, hau da, maila bakoitzeko irabazleari sari berezia emango diote: lehenengo mailakoari marrazteko materiala eta beste bi mailakoei berriz, argazki kamara bat.



• **kutxa fundazioa**
• **fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

MENDI
AUTOESKOLA



Agustin Leitza 11 - ☎ 300604
20140 **ANDOAIN**

BENITO
HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50
BILLABONA

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA

Amalia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL



BURUNTZAKO USTIAPENARI EMENDAKINAK

Orain arteko altueraz gaindi ez egitea eta berriztatze lanak egitea eskatzen dio Rezolari Udalak

Buruntzako harrobiaren egoeraren berri emateko hitzaldia antolatu zuen Andoaingo Ekologistak-Eguzki taldeak. Gutxi barru Udalak Eusko Jaurlaritzari helarazitako emendakinek erantzuna jasoko dute, eta horren arabera Rezolari udal baimena baldintza jakin batzuen pean emango dio. Ustiapenak gaur egungo altuera muga gorenetik gorago egin ez dezan, eta hondatutako guneak berriztatu ditzan eskatzen dio Udalak Rezolari.

Udalak onartutako Arau Subsidiarioen arabera harrobien ustiapenak ez luke 325 metrotik gora egin behar; hortik gora paisaian duen eragina handia dela uste du. Rezolak berriz, 350 metroko altuera muga proposatzen du. Bestalde, Udalak mendia ustiatu ahala, aldi ezberdinetan hondatutako guneak berriztatu ditzan eskatzen dio enpresari. Bi gai horien inguruko emendakinek egin dizkio Udalak Rezolak Eusko Jaurlaritzari igorritako ingurugiroko eragin txostenari. Eusko Jaurlaritzak hila bete honetan bertan eman beharko du erantzuna, eta ondoren Udalak baldintza batzuen pean emango dio Rezolari lanean jarraitzeko baimena. Enpresaren iharduera zainduko da. Prozesu hori guztia aurreko legealdian Rezolaren iharduera legeztatze erabakia hartu zenetik hasi zen, izan ere urte luzeetan legez kanpo lanean aritu izan baita.


Andoaingo Ekologistak taldea Rezolak aurkeztu duen txostenarekiko nabikoa kritikoa da: *"Harrobiko ustiapenak ia inongo eraginik izango ez balu bezala aurkeztu du txostena; ustiaketak ez omen du ia eraginik ez landaretzan ez animaliangan. Bestalde, ez du mendiaren birsortze gaitasuna kontuan hartzen. Paisaian duen eragina orain arte bezalakoa izango dela dio, eta azkenik ez du aintzakotzat hartzen inguruko baserritarrengan eta baita Gabriel Aresti eta Extremadura kaleetako bizilagunengan leberketek eta lur mugimenduek duten eragina"*, azaldu du Garikoitz Plazaola taldekideak.



Ramon Varela eta Garikoitz Plazaola

77 urte gehiago

Buruntzako harrobiko ustiapena 1910. urten hasi zen. Rezola enpresak 1979an lortu zuen Buruntzako harria ateratzeko 30 urteko baimena, eta normalean horrelako baimenak 30 urteko beste bi epealdietan luzatu ohi dira. Beraz, Rezolak, ziur aski, 90 urte beteko ditu lanean. Orain arte 27 hektareako lur eremua ustiatu du, hau Andoaingo mendi zatiari dagokion %16a, eta 135 metroko altuera hartu du. Urtero 500.000 harri tona atera izan dituzte; oso kalitate oneko kareharria.



ONDARRETA

TABERNA

Plater konbinatuak

Ogitartekoak

Pintxoak

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

Arkume eta txerrikume erreak enkarguz

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA



Kalxetiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

23 IKASLE KALERATUTA

Euskal preso politikoaren alde eginiko itxialdi baten ondorioz

Aita Larramendi Ikastolako 23 ikasle hiru eguneko kaleratu zituzten euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzeko ikasgeletan eginiko itxialdi baten ondoren. Erabakia hartzeko irizpide politikoak erabili dituztela salatu dute ikasleek prentsaurrean.

Ikasle batzuek maiatzaren 30ean euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz itxialdia egin zuten, Jarrai gazte erakundeak deituta.

Itxialdia egiten ari zirela ikastetxeko zuzendariak ikasgeletatik irteerako adierazi zien megafoniaz. Ikasleek komunikatu baten bitartez ikastetxeko barne araudia hausten ari zirela jakin arren, ekintza debekatuz adierazpen askatasuna ukatzen ari zitzaizela uste zutela eta itxialdian jarraitzea erabaki zutela erantzun zioten. Itxialdiaren ondoren, soinean pankartak jarrita sartu ziren 23 ikasleak euren ikasgeletara. Irteerako agindu zitzaizkien, eta ikasgela batean irakasle eta ikasle baten artean tentsio uneak ere izan ziren.

Diziplina kontseilua

Astelehenean bildu zen diziplina kontseilua lege hausteari zegokion zigorra erabakitzeko. Ikasleek adierazi dutenez, iritzia bitan banatu ziren: bi ikasleek eta guraso batek falta arintzat jo zuten ekintza, eta guraso gutun bat bidalita nahikoa zela uste zuten. Bi irakasleek eta bes-



Ikasleek eskainitako prentsaurrea

te gurasoen ordezkariak herriz, falta larritzat jo zuten itxialdia, eta bat eta zazpi egun bitarteko kaleratze zigorra proposatu zuten. Zuzendariak, boto eskubiderik ez izan arren, lau eguneko kaleratzea proposatu zuen. Azkenean, hiru egunetarako eskolan sarrera galeratzea erabaki zuten.

Ikasleei zigorra neurritz kanpokoan iruditu zaie, eta erabakia hartzeko irizpide politikoak erabili direla salatu dute. Ikasleek adierazi dutenez, ia aldatu zen ikastetxeko barne araudia, eta adierazpen askatasuna erabat mugatu omen zaie. Momentuz Ikastolako irakasleek gaiari buruz ez dute ezer adierazi nahi izan.

AMA KANDIDA, HERRIKO ALABA KUTTUN

Ehundaka andoaindar bildu ziren San Martin parrokiaren ospatu zen meza nagusian

Maiatzaren 31an arratsaldeko 18.30etan eman zitzaion hasieran udaletxeko areto nagusian Ama Kandidaren alaba kuttun izendapenari. Bertan andoaindar ugari ezezik, Txina, Japon, Brasil edota Boliviako Jesusen Alaben kongregazioko ordezkari ugari bildu ziren, besteak beste. Jose Mari Setien gotzainak ospatu zuen ondoren meza nagusia San Martin elizan, andoaindar dohatsuen irudia aldarera igoz.

Jesusen Alaben kongregazioko sortzaile den Ama Kandida bere jaiotegunaren 151. urtebetetzean izendatu zuten alaba kuttun. Udaltzako onspena eman zion izendapenari. Horrela legez onartu zuten, berez, herriak aspaldi onartua zuten egoera, izan ere herritarrek aspaldi daukate Ama Kandida alaba kuttuntzat.

Jose Maria Setien gotzainak zuzendu zuen meza nagusian herritar ugari

bildu ziren, eta kongregazioko Ama Nagusia den Pilar Martinezek beata izatera iritsi zen lehenengo emakume gipuzkoarrak bere herritarren artean gorde izan duen oroitzapen gozoa azpimarratu zuen.

Berrozpe Etxean, Jose Antonio Perez Gabarain alkateak izendapen ofiziala eman zion Ama Nagusiari, eta andoaindarrak hezkuntza arloan eginiko lan aitzindaria eta kemena azpimarratu zituen.



Kongregazioko urrutiko ordezkariak meza nagusian

RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA

Irailean irekiko ditu ateak

Larramendi Kultur Bazkunak Andoaingo Udalaren laguntzaz orain dela urte t'erdi ekin zion Rikardo Arregi hemeroteka gauzatzeari. Geroztik bilketa lanak ari da egiten. 1994. urtetik aurrera euskaraz kaleratutako aldizkako argitalpen oro biltzeko asmoa dauka, eta irailean jendaurrera irekiko ditu ateak.

Euskarazko herri aldizkarietaz gain, beste hainbat egunkari, astekari, hamaboskari, hilabetekari eta aldizkari espezializatu bildu dituzte orain arte. Bilketa eta sailkapena egin ondoren, hustuketa lana egiteko asmoa ere badaukate, eta horrela erabiltzaileak argitalpen bakoitzean bildutako gaiak eta kronikak aztertu ahal izango ditu. Aipaturiko lana egiteko sistema informatikoa ari dira erabiltzen. "etorkizunean erabiltzaileari eratzasun bandiagoa eskaini asmoz", adierazi digute Elixabete Jaurregik eta Xabier Lasak, hemerotekako arduradunak.

Irailetik aurrera interesatuak bi eratara erabili ahal izango dute hemeroteka: bat, Doktor Huiziko 15. zenbakian daukan egoitzara joz; eta bi, herrikoak ez direnak, beren herrietako udal liburutegietan egin ahal izango dituzte eskariak, eta bertara helaraziko zaizkie argitalpenak.

14 urtetik gora

Hemerotekak 14 urtetik gorako interesatuak eskainiko die zerbitzua, astean zehar ezagutzera emango diren egun eta ordu jakin batzuetan.



Dr. Huizi 15.eko egoitza

Gaur egun hemeroteka gutxi daude: udal liburutegikoa, Koldo Mitxelena kultur gunekoa eta EKBkoa Donostian. Hori dela eta, Andoaingo hemeroteka berria ikasle eta ikerlariarentzat interesgarria izan daitekeela uste du Larramendi Kultur Bazkunak.

SOLBENZIA ZERO


Lehenengo maketa kalean

Musikarako zaletasuna duten taldeei dei egin zien Kultura batzordeak beren lana azaltzeko aukera emanaz, eta bide batez, kaleko giroa biziagotzeko asmotan. Emanaldiak maiatzean zehar, bi egunetan izango zirela aurrikusi zen. Deiarri talde batek baino ez dio, ordea, erantzun, eta ez da emanaldirik izan. Solbenzia Zero taldea izan da aipaturiko bakarra, eta emanaldirik izan ez den arren, ezagutzeko aukera izan dugu, behintzat.

Txabarri, Txandi, David, Etayo, Txupa eta Carmelok osatzen dute taldea: bi andoaindarrak eta nafarrak gainerakoak, Leringoak, hain zuzen ere. Oporak igarotzen ari zirela Lerinen ezagutu zuten elkar, eta gaur egun bertan egiten dituzte entseiuak asteburuetan. Lehenengo maketaren izenburua *Leringrado* da:

taldearen jatorria gogoratuz jarri duten izena.

Dani Pagola andoaindarrak adierazi digunez, "rural punk" izendatzen dute egiten duten musika. Barricada edota Reincidentes-en kutsuko rock-a egiten dute, patxangarekin nahastuz. Lehenengo maketa honetan gai sozialak aipatzen dituz-



te batez ere 16-17 urteko musikari hauek: *mundu nazkantea, me kago en el copón* edota *dales kaña* dira izenburu aipagarrienetako batzuk.

8. MAILAKO IKASLEAK PORT AVENTURA-N Billabonako Fleming ikastetxeko ikasleekin batera joan dira



Port Aventura-ra joandako ikasle batzuk

Ikasturte amaierako bidaiak izan dira Pello Errotako 8. mailako ikasleak joan den maiatzean. Asteasuko hamahiru ikasleekin batera, adin bereko Billabonako hogeita bat ikasle joan dira, eta oso ondo moldatu dira euren artean. Eskolan batera ibilitako urteen saria izan da bidaiak, eta datorren ikasturtean bakoitzak bere bidaiari ekingo dio.


Port Aventura-ra eta Bartzelonara joan dira hogeita hamalau ikasleak, eta leku bakoitzean pare bat egun igaro dituzte. Lau irakasleren ardurapean egon dira, eta aparteko arazorik ez dutela izan esan digute. Kexu samar dira ordea, hondartzan edota igerilekuan ibiltzeko denbora gutxi izan dutelako. Gauean hamabiak arte edo ibiltzen ziren kalean gehienak, baina ordu txikietan oraindik esnai jarraitzen zuten askok. Nahikoa nekatuta heldu direla esan digute, baina oso gustura ibili direla ere bai.

Ekainaren 28an afaria Asteasun

Ikasturtea ekainaren hogeita batean amaituko dute, eta hori ospatzeko eta bidaiako lagunak elkartzeko, afaria egingo dute Asteasun jaietako lehenengo egunean. Herri eta eskola ezberdinetako gaztetxoak lagun onak egin dira nonbait.

KANTU AFARI ARRAKASTATSUA

Eztarriak urratu arte abestu zuten



Umorerik ez zen falta izan

Hogei asteasuar inguru bildu ziren Larramendi Kultur Bazkuneko kideek antolatu zuten kantu afarian. Kantuan hasi aurretik, bapo afaldu zuten, eta ondoren, guztiak gogo onez ekin zioten abesteari. Kantu sortako berrogeita hamar kantuetatik ia guztiak abestu zituzten. Eta batez ere, oso ondo pasa zuten.

Kantu afariko abeslari gehienak nahikoa gazteak eta ia guztiak emakumeak izan ziren. Maiatzaren azken egunean egin zuten afaria, eta egunak ilundu zutenetik goizeko ordubiak arte ez ziren mahaitik jaiki. Patxine tabernan afaldu zuten, eta afariko txipiroiek nahiz ondorengo txurrutek -pare bat besterik ez-, abesteko indar handiak eman zizkieten nonbait. Izan ere, guztiak oso gogo onez abestu zuten. Inor ez zen abestu gabe gelditu.

Soinujole paregabea

Harkaitz Apeztegia, Ibarako soinujole gazteak, abestien hasiera jotzen zuen, eta ondoren, mahaikideek jarraitzen zioten. Gainera, abeslariak nekatzean Harkaitzek hartzen ziren erreibuea, eta trikitixa pieza ederrak jo zituen.

Ngeltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

SOTO
elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g BILLABONA
☎ 69 11 73

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXKO POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

BEHAR-ZANA ELKARTEAREN 50. URTEURRENA

Argazki zaharren erakusketa Gurea zinema aretoko erakusgelan

Berrogeita hamar urteren buruan pilota partidu asko jokatu eta ikusi dituzte Behar-Zana elkarteko lagunek. Horrezaz gain, pilota erakusteko eskola, txapelketak, eta nola ez, jaiak ere antolatu dituzte. 1946. urtean Billabonan osatu zen lehenengo elkarte da Behar-Zana, eta Billabonan nahiz pilotaren inguruan ospe handia izan du eta dauka elkarteak. Berrehun bazkide baino gehiago dira, eta aurten, ederki ospatu dute urte hauetan guztietan zehar buruturiko lana.

Urte askotan zehar antolatu dituzte antzeko ospakizunak, baina aurtengoa garrantzitsuagoa izan da. Izan ere, mende erdia igaro da elkarte sortu zenetik, eta aurtengoan, pilota partidu asko, afari nahiz bazkari ederak, eta ekitaldi ugari egin dituzte maiatzaren 30etik ekainaren 2a bi-

tartean. Horrezaz gain, ekainaren hamaseira arte ikusgai egongo den argazki erakusketa antolatu dute Gurea zinema aretoko erakusgelan. Bertan, Billabonako pilotari gehienek argazkiak bildu dituzte. Billabonako historia eta pilota islatzen duen erakusketa aberatsa da. Pello Ugalde zenari egin dioten ohorezko baz-

kide izendapena izan da besteak beste, egitarauko ekitaldirik garrantzitsuena. Era berean, elkarteko lehendakari ohi guztiak bildu zituen bazkaria ere egin zuten azken egunean.

Erreboteari bultzada handia eman dio elkarteak

Gipuzkoan Billabonan eta Zubietan bakarrik jokatzeko deitzen den pilota jokoa, Behar-Zana elkarteak bultzatu du erreboteari nahiz Joko-Garbia Billabonan. Izan ere, laurogei haurrei baino gehiagori erakusten diete erreboteari nahiz beste pilota jokoa, eta gainera, beste laurogei gazte federatu dituzte. Egun erreboteari jokatzeko duten gaitasun oso maila ona dutela adierazi digu elkarteko Jose Antonio Jauregik, eta txapelketa nahiz torneo ugari irabazi dituztela ere aipatu digu, erreboteari nahiz beste pilota jokoei.

Pilotaren historia bilduko duen liburua

Udazkenaren hasieran, irailean, Pilota Astea antolatu nahi dute. Bertan Joseba Urdangarin eta Dani Egaña kazetariak egiten ari diren liburua aurkeztu nahi dute. Liburuan Billabonako pilotaren historia bilduko dute, eta Behar-Zanako kideak ere ari dira lan horretan. Informazio asko ari dira biltzen, eta Billabonan ehun eta hemezortzi pilotari profesional izan direla jakin dute, besteak beste.



Billabonako pilotaririk esanguratsuenak

Mimos
HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA
JAIOBERRIARENTZAKO
BEHAR DEN GUZTIA
BANATZAILEAK:
• BEBE CONFORT
• JANE •ARRUE
• INGLESINA
Kale Naqusia, 29 - BILLABONA

VIDEO CLUB AMETS

Bideo zintak alokatzen dira
CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba
Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

Loatzo
LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK
Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 BILLABONA

BERTSO ETA IPUIN LEHIAKETA

Ekainaren 14ean egingo dute sari banaketa

Ikasturtea amaitzear dago, eta azken azterketekin batera, ipuin eta bertso ugari egin dituzte Fleming eta Jesusen Bihotza ikastolako ikasleek. Zortzi urtetatik hamalau urte bitarteko haurrek hartu dute parte lehiaketan, eta ikasle askok oso gogo onez egin dituzte bertso nahiz ipuinak: 253 lan aurkeztu dira guztira. Ekainaren hamalauan egingo dute sari banaketa, eta irabazleak, Tolosako bertso-eskolako kideek eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak aukeratu dituzte. Lehiaketaren helburuak gazteak euskara erabiltzera bultzatzea eta literatura lantzea dira.

Euskara batzordeko arduraduna den Xabier Zabala zinegotziak esan digunez, duela lau urte inguru hasi ziren lehiaketa antolatzen, euskararen erabilpena bultzatzeko. Izan ere, gazetxoek euskaraz egin behar dituzte euren bertso eta ipuinak, eta horren ondorioz, euskara erabili eta landu egiten dute. "Gazteak dira euskara etorkizunean erabili eta bermatuko dutenak" esan digu Zabala zinegotziak, eta hori dela eta, lehiaketan 3. mailatik 8. maila bitartean ikasleek hartu dute parte. "Horrelako lehiaketa batek euskaraz idazteko grina suspertzen du" adierazi digu Zabalak, lehiaketak literatura lantzea ere helburu duela gogoraraziz. Gainera, epaimahaikiden esanetan, batek baino gehiagok benetako dohaiak ditu idazteko.

Bertso eta ipuin guztiak jaso, aztertu eta irabazleak aukeratu ondoren, liburuska batetan biltzen dituzte bertso eta ipuin irabazleak. Aurtengo sari banaketan beraz, ia zoko irabazleen lanak biltzen dituen liburuska aurkeztuko dute, eta ikastetxe eta liburutegietan banatuko dute. Gazteei protagonismoa emateko egingo dute liburuska. Bide batez, Xabier Zabalak eskerrak eman die lehiaketan parte hartu duten guztiei. "lehiaketa hau burutzeko posible egin dutenei, alegia".

Billabonako
IV. idazlan sariketa
1995
Saritutako idazlanak



OHU - KO
3., 4., 5. eta
6., 7. eta 8. mailak

AURTENGO IRABAZLEAK

Ipuinak

Erdi-zikloan:

1º **Laino gaineko gaztelua.** Oskar Aierdi.
2º **Mendian beldurrez.** Armaez-Agirre.
3º **Txakurra eta katua.** Uxoa Elustondo.

Goi-zikloan:

1º **Antxira bidai.** Miriam Otamendi.
2º **Leyenda bat Gorlias-en.** Nicolas Quilez.
3º **Amatur.** Nora Urbizu.

Bertsoak

Erdi-zikloan:

1º **Pelota.** Eñaut Etxeberria.
2º **Ingurunea zainduz.** Iker Rezola.
3º **Bertsoak.** Jon Etxeberria.

Goi-zikloan:

1º **Kattagorria.** Ander Barandiaran.
2º **Euskera.** Aloña Arruti.
3º **Billabonako ehurtea.** Mikel Garmendia.



HIRU ZIZURKILDAR GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETAN

Naroa Geresta, Joseba Otaegi eta Jon Ormazabal zizurkildarrek, Gipuzkoako eskolarteko XVI. bertso txapelketan hartu dute parte. Astigarragako kanporaketan bertso ederrak abestu zituzten, eta ondorioz, Zarautzen maiatzaren 24ean ospatutako finalean ere abestu zuten. Zarautzen ordea, urduri jarri ziren nonbait, eta Mutrikoko lau bertsolariak irabazi zuten txapela.

Iaz txapelketa berean baina bertso idatzien alorrean Josebak jantzi zuen txapela, eta Jonek berriaz, aipamen berezia jaso zuen. Aurtengoan ordea, bat-bateko bertso txapelketan hartu dute parte bertso ikastaroko ikasle diren Joseba, Jon eta Naroak. Txapelketan parte hartu duten beste herrietako taldeak lau lagunekoak ziren, eta hurrengo urterako lau laguneko taldea osatuko dutela adierazi digu Amaia Agirre irakasleak. Talde bakoitzak agur bana eta lau bertso abestu zituen txapelketaren finalean nola kanporaketan.

Trikitixaz lagunduriko agur berezia

Trikitixaren laguntzarekin abestu zuten hiru zizurkildarrek euren agurra, eta oso harrera ona eduki zuen agur berezi honek. Ondoren Joseba eta Jonek bertso bana abestu zituzten antolatzaileek emandako lau oinak erabiliz. Naroak berriaz, eman zien gaiaren inguruan abestu zuen bertsoa, eta gauza bera egin zuen gero Josebak.

"Bat-bateko txapelketan parte hartu duten lehenengo aldia da, eta nabikoa ondo egin dute" azaldu digu Amaia Agirrek. Txapelketako finala ikustera jende asko joan zelako edo, urduri jarri zirela erantzun digute hiru bertsolariak. Hala ere, datorren urteko txapelketan parte hartzeko gogorik ez zaie falta.

Joseba Otaegik Astigarragako kanporaketan abesturiko bertsoa:

*Semifinala bila degu apirila
jende mordo bat dago ia ia mila
hona etorri gara finalaren bila
desioa egia biburtu dadila*



"Hirukote mardula", dio Jonek biru bertsolariet buruz

NAGORE IRAOLA EUSKADIKO TXAPELDUNA

Bitan hautsi du Espainiako errekorra 80m hesi-lasterketan

Nagore Iraola gazteak Euskadiko eskolarteko 80m hesi-lasterketan lehenengo postua lortu du. 11.5 segunduko denbora egin du, eta ondorioz, Espainiako errekorra hautsi du. Aipatzekoa da berak aurretik lortutako errekorra dela orain hautsi duena.

80m hesi-lasterketan Euskadiko txapela irabateaz gain, errelebu-lasterketan ere lehenengo postua lortu du berak eta beste hiru neskek osatutako Gipuzkoako taldeak. Gainera, Gipuzkoako txapelketa ere irabazi zuen, eta orduan ere Espainiako errekorra hautsi zuen: 11.7 segunduko denbora egin zuen.

Errekor horrezaz gain, urrezko bi domina irabazi zituen: 150 metroko lasterketan bat, eta 200m hesi-lasterketan bestea. Zilarrezko dominak ere ekarri zituen etxera; bata luze-
ra-jauzian lortutakoa, eta bestea be-

rriz, 80 metroko lasterketan irabazitakoa.

Duela bost urte hasi zen Nagore korrika egiten Pedro Mari Otaño ikastetxean, eta handik pare bat urtetara Tolosan entrenatzen hasi zen. Jaime Legarra tolosarra du entrenatzaile, eta astean lau aldiz joan ohi da entrenatzera. Datorren urtean Orixe ikastetxera joango da ikastera, baina korrika egiteari ez diola utziko esan digu. Gainera, astean bost egunetan entrenatu beharko du.

Beste behin hautsi du errekorra



Asteasu-Billabona

OGI ZURI-OGI GOXO

Hamar urte bete dituzte aurten

Orain dela urte batzuk herri txikietara ogia eraman egiten zuten herri handia-goetako okinek; gaur egun herri txikietan ere okindegiak daude, eta bertan eginiko eguneko ogia eskaintzen diete herritarrei. Okinaren lanbidean aurrerapenak izan dira -labe hobek, automatizazioa eta abar-, baina funtsean ogia beti egin izan den bezala egiten jarraitzen dute okinek: irina, ura eta gatzez oreka egin, pisatu, bildu, legamiaz ontzen utzi eta labean erre.

Okin bakoitzak badu ordea ogiak azkenean zapora, forma eta kalitate berezia izan dezan bere sekretua. Horrezaz gain, ogia egitean, ontzeko garaian eragiten duten bi baldintza hartu behar dira beti kontuan: denbora eta temperatura, izan ere eguraldiak eta temperatura aldaketak ogiak ontzeko behar duen denbora luzatu edo laburtu egiten du. Bestalde, okinaren lanbidea beti bezain gogorra izaten jarraitzen du: egunero eta urte osoan, ia jaiegun bat hartu gabe, gauez lan eta egunez lo.

Era askotako ogiak

Ogia ezertan aldatu baldin bada, eskaintzen dituen neurri eta forma ezberdinetan datza: okindegietan garai batean ogi zuri handia eta txikia, eta zopakoa baino ez ziren izaten; gaur herriz, Ogi Zuri-Ogi Goxo okindegietan adibidez, aukera handia dago: gatzik gabea, "espainola" deritzona, baserriko ogia, integrala, eta garai batean horrenbeste jaten zen ogi beltzetan zitu ezberdinak nahasten dituen ogia. Horrezaz gain, asteartean bakarrik egiten duten beste ogi berezi bat ere badago, idorreria izan ohi dutenentzat berezia. "Azkenengo zazpi urteotan ogi mota asko egiten hasi dira okinak-zehaztu digu Mertxe Iztuetak-bala ere, zaila da jendearekin as-

Asteasuko Juan Mari Ansa eta Mertxe Iztuetaekin aritu gera ogiaz, okinaren lanaz, eta lanbidea izan ohi dituen gora-beheretaz hitz egiten. Badira hamar urte Asteasu eta Billabonan Ogi Zuri-Ogi Goxo izenpean ogia eta gozoak egin eta saltzen dutela. Gainera, Alkizan, Anoetan eta Zizurkilen ere egunero egiten dute banaketa. Bestalde, Billabonan goizean eguneko ogia saltzeaz gain, arratsaldez ere ogi egin berria saltzen dute.



Era guztietako ogiak

matzea; jendeak ogi ona baina merkea nahi izaten du".

"Ogia edozein dietetan behar-beharrezkoa da"

Orain baino urte txarragoak jasan dituzte okinek: "Orain dela urte batzuk, argaltzeko kontuak zirela eta, ogi kontsumoa asko jaitsi zen. Eta kontsumitzaileek ez dakite edozein dietetan ogia behar-beharrezkoa dela". Ogiak, bere neurrian eta egoki janez gero, ez omen du gizentzen, ogiarekin batera jaten diren saltsek eta beste-lakoek izan ohi dira gizentzen dutenak. Bestalde, bizitza modernoak

otorduetako ohiturak ere aldarazi ditu, eta okinen esanetan, jende askok baztertu ditu haurrentzako ogi-tartekoak edota gosaritako kafesneak zopekin.

Ogia hala ere, beti izan da otorduetako oinarritzko osagaia, eta merkea gainera, eta alde horretatik ogia egiten eta jaten jarraituko dela ematen du. Hala ere, okinek gaur egun inoiz baino kompetentzia handiagoa daukate bere artean: okindegi handi batzuk hasi dira esate baterako, oreka leku batean egin, izoztu eta lekuan lekuko okindegietan oreka erre eta egin berria halitz bezala saltzen: "jendeak bala ere, badaki ogi ona eta txarra bereizten -gaineratu digu Mertsek-, ez dago eguneko ogia bezalakorik".

EGITARAUA

EKAINAK 21, OSTIRALA:

- 22.30: **Dantzaldia Iratxo** taldearekin.
23.00: Pilota jaialdia Arrate frontoian.

EKAINAK 22, LARUNBATA:

- 10.00: **Haurren eskupilota txapelketaren finala.**
10.00: XII. Calva txapelketa kiroldegiko zelaian.
16.00: Irrati-aurkiketa lehiaketa 11-15 urteko gazte-txoentzat.
16.00: Plater tiraketa Dorrontxolako zelaian.
16.00: *Squash* txapelketako finalak kiroldegian.
16.30: Aldibereko xale partidak Goikoplazan.
17.00: *Triana* taldearen emanaldia Goikoplazan.
18.30: *Miajón de los Castiños* taldearen emanaldia Goikoplazan.
19.00: **Oria txaranga.**
19.00: Donostiako Ingenieru Eskolako tuna.
20.00: **Dantzaldia Aquarium Show** taldearekin.
20.00: Zezen boladunak.
22.30: **Agutin Leitza** elkartearen **danborrada.**
24.00: Zezensuzkoa.
00.30: "Iaio-iaio, artista bat jai! jaialdia: irrintzi, txiste eta kantu txapelketak.

EKAINAK 23, IGANDEA:

- 10.00: Diana herriko dultzainariekin.
10.00: **Gipuzkoako jubilatuen VI. itzulia.**
10.00: Taldekako xake txapelketa.
10.30: Haurren zesta punta txapelketaren finalak.
13.00: Musika eskolako ikasleen kontzertua Goikoplazan.
18.00: **Haurren danborrada.**
19.00: Helduentzako toka lehiaketa.
19.30: **Buruhandi eta erraldoien konpartsa berriaren aurkezpena Goikoplazan.**
19.30: Txirrindulari *Criterion*-a Kaleberrian.


- 19.30: Txalaparta txaranga.
20.00: Salbe gorena San Martin elizan.
20.00: Zezen boladunak.
21.00: Ttuntturroen kalejira.
22.00: Txistularien kalejira.
22.30: **San Juan sua Goikoplazan.**
22.30: **Dantzaldia Ostadar** taldearekin.

EKAINAK 24, ASTELEHENA:

- 09.00: Diana herriko dultzainariekin.
10.30: **Bertako produktuen azoka.**
11.00: Meza nagusia.
12.00: **Axeri dantza Goikoplazan.**
13.00: **Laurogei urtekoen jai** udaletxean.
17.30: **Herri kirolak.**
17.30: Mahai jokoak Goikoplazan.
19.00: Patata tortila txapelketa Goikoplazan.
19.00: Herriko trikitilariak kalez kale.
19.30: **Bertsolarien jaialdia** La Salle-Berrozpe ikastetxeko patioan.
19.30: Dantzaldia Trabuko taldearekin.
20.00: Zezen boladunak.
22.00: Areski gimnasioko taldeek eskainitako ikuskizuna.
23.00: Dantzaldia Trabuko taldearekin.
22.30: Zezen suzkoa.

EKAINAK 25, ASTEARTEA:

- 11.00-17.00: **Haur parkea eta tren.**
17.30: **Auskalo taldea: "Troketa zopa", haurrentzat dantzaldia.**
19.00: **La Bella y la Bestia** baleta Goikoplazan.
19.30: Egan Berria taldearekin dantzaldia.
20.00: Zezen boladunak.
22.45: Artifiziozko suak.
23.00: **Dantzaldia Egan Berria** taldearekin.



BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KONPARTSA BERRIA

Ekainaren 23an, igandea, aurkeztuko dituzte

Orain dela bi urte t'ardi iragarri genuen aurrenezkoz buruhandi eta erraldoien konpartsa berria kalera irtetear zegoela. Denbora epe horretan konpartsak egin dituzte, Iruñean, baina lana amaitu eta gero entseiuak egiteko arazoak izan dituzte, horregatik atzeratu da aurkezpena. Azkenean, Sanjuanetan, ekainaren 23an, igandea, arratsaldeko zazpi t'erdietan Goikoplazan ezagutu ahal izango dituzte andoaindarrek, soin eta jantzi berri, buruhandi eta erraldoi berriak.

Herriko konpartsari berezko izaera eman nahian ekin zioten berrikuntzari; horregatik aukeratu dituzte konpartsa egiteko herriko pertsonaiarik esanguratsuenak eta ohiko ofizio eta lanbideak. Lau erraldoiek, bi bikote osatzen dituzte: Juan Legarra eta alaba, eta Azelaingo señoritoa eta arreba. Buruhandiek honako pertsonaiak osatzen dituzte: meatzaria, olagizona, ikazkina, emakume estraperlista, tren makinista, geltokiko na-

gusia, mandazaina eta Lebiton ipuinetako pertsonaia. Tradizioz, eta Iruñea aldean batez ere, konpartsak gizarteari eta aginteari gehien bat, irri egiteko balio izan dute, eta beti agertu izan dira islatuta goi mailako herritarrak eta herri xehea. Andoaingo konpartsak ere zentzu berean egin ditu bereak.

Jaiak aurretiko azken egunotan konpartsa taldeko ki-deak buru-belarri ari dira entsaiatzen, 50 kilo eta 4 metro inguru alturako erraldoiak erabiltzea ez baita erraza.

Aurkezpen egunean normalean konpartsa lagundu ohi duten dultzainariez gain, Tolosako konpartsaren laguntza izango dute andoaindarrek. Dena den, aurkezpen hone-taz gain, udazken aldean herritarrei erakusketa baten bi-tartez konpartsa hobeto ezagutzera emango zaiela adie-razi digute antolatzaileek.

BURUHANDIAK




Meatzaria

Tren geltokiko nagusia

Emakume estraperlista

Mandazaina



Lebiton

Tren makinista

Ikazkina

Olagizona

ERRALDOIAK



Azelaingo señoritoa

Azelaingo señoritoaren arreba



Juan Legarraren alaba

Juan Legarra

Billabona

MINTZALAGUNAK

Euskaltegiko hamar ikaslek euskaraz hitz egiteko laguna aurkitu dute

Euskaltegietako iharduera ez da normalean nahikoa izaten ikasleak eguneroko bizitzan, familian, lagunartean, euskaraz hitz egiten has daitezen; giro egokia eta askotan norekin hitz egin falta zaie. Hori dela eta, euskaltegiko irakasleei euskaraz ikasten ari direnei mintzalagunak aurkitzea bururatu zitzairen. Euskaltegian bertan egin zuten proposamena, eta hiru talde sortu ziren, talde bakoitzean euskaldun zahar bat dagoelarik.

Aiurri: Zenbatero elkartzeko zarete?

Ana, Olga, Sonia eta Ines: Asantean behin, arratsaldeetan ordubetez. Batzuetan kafea bartzera joaten gara, beste batzuetan paseotxo bat ematen dugu... Egia esan, oso arin igarotzen zaigu ordubetea.

Ai: Hasiera ez al zitzazuen gogor samarra gertatu?

A,O,S,I: Batzuek elkar ezagutzen genuten autzokoak ginelako edota euskaltegian ikusita, beste batzuek herrikoak zirela bai, baina hortik aurrera, ezerrez. Baina bala ere, hasiera ez zen irakasleek aurrerik bezain zaila izan. Lehenengo egunean nor bere bizitzako gora-bebera batzuek kontatu zituen, eta oso erraza izan zen.

**«Harremanetan
hastea ez da batere
zaila izan»**

Ai: Eta orain lagun onak biburtu al zarete?

A,O,S: Aste Santuan ezagutu genuten elkar, eta ezin esan erabateko harreman sakona degunik, baina badaukagu nolabaiteko konfiantza: lagunak biburtu gara, alegia.

I: Ni kezkatu samar nago: nire aldean oso gazteak dira, eta ez dakit nirekin gustura dauden ala ez, baina...

Ai: Lehen hitz egiten al zenuen euskaltegitik kanpo euskaraz?

A: Nik ez, izugarritzko lotsa daukat, baita orain ere. Maila altuagoa izango banu, beharbada... banka sartzeak atzera eginarazten dit. Eta bestalde, gaur egun euskaldunek erdi-euskara erdi-gaztelera hitz egiten dute, bi bizkuntzak nahastuz, eta orduan gaztekeraz egitea beti da errazago.

O: Nik haurrekin bakarrik egiten dut euskaraz katekesian. Badauzkat lagun euskaldun herriak, baina geure artean beti hitz egin izan dugu gaztekeraz, eta oso arraroa egiten zaigu euskaraz aritzea.



Ines Isasti

S: Nik ikasketak euskaraz egin ditut, eta eskolan lagunekin euskaraz hitz egiten dut.

**«Gurekin batera
besteek ere
ohituraz aldatu
behar dute»**

Ai: Eta orain zuen jarrera aldatu al da?

A,O,S,I: Ez ditugu lehenengo obiturak aldatu, baina orain euskaraz gebiago hitz egiteko aukera daukagu. Bestalde, euskaraz hitz egiten



Euskaltegian bilduta

basteko ez genuke obituraz guk bakarrik aldatu beharko, ingurukoek ere aldatu beharko lukete.

Ai: Ines, zergatik erabaki zenuen mintzalagun biburtzea?

I: Alfabetatze ikastaroa egiten ari nintzen euskaltegian, ikastaroa amaitu zen, ideia proposatu eta oso egokia iruditu zitzaidan. Euskaldunok kontraesan handiak dauzkagu: batetik, euskara indartu nahi dugu, eta gero, horrelako gauza bat egitea eskatzen digutenean, ez dugu parte hartzen. Beraiak esfortzu hori egiten badute, geuk, euskaldun zaharrok ere interes handiagoa agertu beharko genuke.

Ai: Zer moduko esperientzia izan da?

I: Ni oso pozik nago. Euskarari dagokionez, ez dut gauza berririk ikasi, baina gazteen mundua eta beren bizipenak gertuagotik ezagutzeko aukera izan dut. Pozgarria da mundu berri bat ezagutzea.

Ai: Hitz egitean zuzenketak egiten al dizkiezu?

I: Nik ez dut irakaslearen egitekoa bete behar, baina gaizki esaten dituzten gauza batzuk zuzentzen

«Euskaldun zaharrok interes handiagoa agertu beharko genuke»

dizkiet. Polikiago hitz egiten saiatzen naiz gainera, esaldiak biribilduz, eta hitzik jan gabe. Hitz berriak erakusten ere saiatzen naiz.

Ai: Gogoratzen al duzue zergatik hasi zineten euskara ikasten?

A,O,S,I: Euskara gure bizkuntza da, eta ikasteko gogoia sentitu genuen. Gure ondorengoei ere euskara transmititzea gustatuko litzaziguke. Gainera, herri batzuetan derrigorrez jakin behar duzu euskara, bestela jokoz kanpo geratzen zara.

Ai: Mintzalagunak noiz arte jarraituko duzue elkartzeko?

A,O,S,I: Ez dugu horri buruz hitz egin, baina uste dugu aspertu arte jarraituko dugula.



Sonia Martin, Olga Pizarro, Ana Bravo ikasleak

BILLABONAKO EUSKALTEGIA

UZTAILEAN IKASTARO TRINKOAK

MATRIKULA EPEA: EKAINAREN 17TIK - 28RA

ORDUA: 6ETATIK - 8ETARA

• E.G.A. (AZTERKETA BILLABONAN)

• ALFABETATZEN

ERREBOTE PLAZA ☎ 69 25 36



TESTU LIBURUAK
ID.M.O. B.B.R. L.H. ...
ESKOLARAKO OSAGARRIAK
JOKO DIDAKTIKOAK
IRAKURKETARAKO LIBURUAK
ALDIZKARIAK
PAPERDENDA

IRAKURKETARAKO LIBURUAK ZURE HERRIAN

BILLABONA

Kale Nagusia, 29 ☎ 69 16 51

Billbona

ERREKALDEKO INTXAURRAREN ITZELA

Teodoro Mujikaren lehenengo liburuak

Teodoro Mujika zizurkildarrak oso gaztetatik izan du bertso zaletasuna. Bertsoak idatzi ezezik, kantatu ere egin izan ditu txapelketetan, baina jendaurrean aritzea ez zuen oso gogoko, eta bertsoez gain, bestelako istorioak eta pasadizoak idazteari ekin zion. Urteetan makina bat idatzi ditu, eta halako batean Auspoa argitaletxeak, Aita Zabalen bitartez, idatzi batzuk bildu eta liburuak kaleratzeko proposamena egin zion. Errekaldeko intxaurraren itzela liburuak argia ikusi berri du, eta ziur aski, Teodororen bizilagun askoren interesa eta jakinmina piztuko du.



Zizurkildarra jaiotzez

Zizurkilen jaio zen Teodoro Mujika, Arrieta Etxean. Hogeita zortzi urte zituela joan zen Billabonara, eta bertan jubilatutik aurretik lantegian eta ileapaindegian lan egin du. Lanarekin batera beti eutsi dio bere zaletasunari: bertsoak idazteari. *"Oso gazterik sartu zitzaidan bertso zaletasuna -azaldu digu- ziur nago, aitona eta osabak kutsatu nindutela"*. Aitona, erreteriarra, oso gazte joan zen Zizurkilgo Errekalde baserrira morroi. Horregatik, errekaldearren eta haien etxeko bertso zaletasuna gogoratuz jarri dio Teodoro Mujikak bere lehenengo liburuari aipaturiko izenburua.

Teodoro Mujika bertso lehiaketetan ere ibili izan da: *"1949an izan zen bertso sariketa batean bartu nuen parte. Baina urduriegia nintzelako edo, eta ezta rri txarrekoa, kantatzeari utzi eta idazteari eman nion. Baserriri bidaltzen nizkion bertso haiek. Honek nik merezi baino gorago jartzen ninduela uste dut"*.

"Urduriegia jartzen nintzen txapelketetan, eta idazteari eman nion"

Urte berean ezagutu zuen Aita Otegi Josulaguna, Arritxipi baserriko semea. Txinatik bere txokora bisita egitera etorria. Zizurkilgo gertakari xume batzuk kontatu zizkion, eta berehala esan omen zion: *"Zuk ba-*

daukazu liburutxo bat idazteko bainbat bertso eta gertakizun berri, eta lan horretan saiatu beharko zenutke". 1968an Aita Zabalak egin zion bisita Teodorori eta *Diario Vasco* egunkarian zutabe bat idazteko aukera eskaini zion. Hiru urtez aritu zen lan horretan. Handik urte batzuetara Aita Zabalak berak bere liburuak osatzeko laguntza eskatu zion zizurkildarri, eta hura amaitu ondoren Teodorori berea osatzera eta argitaratzera bultzatu zuen. Horixe da, laburbilduz, Teodoro Mujikaren lehen liburuaren historia.

Hitz lauak eta bertsoak, argazkiz apainduta, bildu ditu Teodorok liburuan. Bertan Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo istorioak kontatzen ditu, Teodorok berak bizi izandakoak eta kontatutakoak. Hona hemen atal esanguratsuenetako batzuk: "Joxe Bernardo Otaño", "Pedro Maria Otañori", "Karidade Etxea", "Pantxikanea", "San Millango markesaren bizikera", "Pello Errota", "Kontxesi", "Adunako Joxe Mariaren ateraldiak" eta abar. "Iru erri maitagarri" izenburuko pasarteko bertso batzuk dituzue hauek:



*Iru erritxo maitagarriak
gain gozo eta ederrian,
eguzkiaren begiak gogoz
jotzen ditu aurpegian.
Iruak lagun paregabeak
eta paraje berian,
Asteasu eta Adunarekin
Zizurkil dago erdian.*

*Ezker-eskubi dauzkazu beti
Aduna ta Asteasu,
oien babesak gordetzen zaitu
goxoki eta paketsu.
Bata goiztarra dezu laguna,
bestea arratsaldetsu,
eta, Zizurkil, bien arteko
egun erdian zaude zu.*

*....
Bildots txiki bat bere amaren
inguruan bezin umil,
txoko maitea, gabiltz gu ere
beti zuregandik urbil.
Biotz erdiko Asteasu ta
Adunarekin Zizurkil,
zuen altxoan sortu gindaden
ta alaxe nai degu il.*

*Errekaldeko intxaurraren itze-
la Teodoro Mujikaren lehenengo li-
burua da, baina oraindik ere beste
bat osatzeko adina kontakizun ba-
dituela aurreratu digu, eta gainera
idazteko gogoz jarraitzen du. Teo-
dorok *Diario Vasco* egunkarian
ezezik, Zeruko Argian eta Arantza-
zuko aldizkarian ere idatzi izan du.*



Beti izan du idazteko zaletasuna

“Historia liburuak irakurtzen ditut batez ere”

Irakurri ere asko egiten du; his-
toria liburuak literatura baino gehia-
go. Bestalde, eta gaur egun idazle
jator asko izan arren, gehientsuenak
zail samar idazten dutelakoan dago:
*“Bide errazetik joan beharra dago;
jende xebeari eman behar zaio ja-
ten, ezin da gutxiengo batentzat*

bakarrik idatzi”. Horrexek kezka-
tzen du Teodoro gehien, eta baita
liburuen prezioak ere. Garestiak,
bere iritziz: *“Garestiegiak dira, mer-
kerxeago saldu beharke lirateke,
guztien eskura egon daitezen, eta
irakurzaletasuna bultzatzeko”*.

Auspoa argitaletxeak argitaratu-
tako Teodoro Mujikaren *Errekalde-
ko intxaurraren itzela* liburua, li-
burutegietan ezezik, Zizurkilgo udal
bulegoetan, Aurrera enparantzako
udal bulegoetan eta Zizurkilgo li-
burutegian ere salgai dago. ■


ORTE
 CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17


 AHOLKULARITZA
 ARTEZKARITZA
IRAOLA
 ENPRESEN AHOLKULARITZA:
 FISKALA, DIRUKONTUENA,
 JURIDIKOA, LABORALA,
 ASEGURU OROKORRAK

**Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA**


 OGI ZURI


*ogi berezi eta
artesanauak
etxerainoko
zerbitzua*
 OKINDEGIA, S.L.

OGI-GOXO



• TARTAK • LIJITO BESOA • PASTELAK
 • TEILAK-ZIGARRILOAK
 • HOJALDREAK • MAGDALENAK
 Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

ERREBOTEA BILLABONAN. 1930



Billabonako Behar-Zana pilota elkarte ezagunak ospatu berri du bere berrogeita hamargarren urtemuga. Dena den, pilota zaletasuna aurretikoa da Billabonan. Hala ere, garai batean partiduak baino gehiago, zaletuek desafioak antolatzen zituzten. Argazkiak agertzen diren **Lertxundi, Garate, Irazu** eta **Zumeagak** eta beren familiak gerora ere harreman estua izan zuten

elkarte berriarekin: **Baldomero Lertxundi** elkarteko lehendakari izan zen; **Francisco Zumeaga** berriz, tantu kontalari.

Billabonan ezezik, errebote jokoa bailara osoan ere nahikoa zabalduta zegoen. Gerra aurretik bazeuden hemezortziren bat talde, eta Asteasun. Zizurkilen nahiz Andoainen jokatu ohi zen.

- 1- *Pako Aiestaran*
- 2- *Patxi Ordozgoiti*
- 3- *Adrian Berasategi*
- 4- *Rosendo Garate*
- 5- *Francisco Zumeaga*
- 6- *Godó Hernández*

- 7- *Baldomero Lertxundi*
- 8- *Federico Urdanpilleta*
- 9- *Angel Irazu*
- 10- *Juanito Ezkioga*
- 11- *Juan Ugarte*
- 12- *Anton Lertxundi*



BORDA
Jatetxea

A N D O A I N



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

AINHOA ETXABE

Amasarra; dinamizatzaile komunitarioa



- Zein herritan egiten duzu lan?

- Bost herritan: Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkil. Bulego orokorra Zizurkilgo Karidade etxean dago, beste gizarte zerbitzuekin batera. Asteasun bakarrik egoten naiz bi orduz finko arratsaldetan, Lizardi Etxean.

- Zertan datza zure lana?

- Herri bakoitzak bere berezitasunak dauzka, eta lana leku bakoitzean ezberdina da. Zizurkil goian adibidez, hirugarren adinekoekin bakarrik egiten dut lan. Asteasun ere bai. Gainerakoetan herri osoarekin aritzen naiz, lan hori egingo duen beste inor ez baitago, eta beharrezkoa zen. Izan ere, beste herrietan adibidez, badaude Kultur Etxeak. Nire lana, hitzak dioen bezala, dinamizatzea da; ekintzak antolatzea batez ere: ikastaroak, bidaiak, hitzaldiak... Herri txiki hauetan nirea bezalako figura bat, guztiz berria da, hala ere herritarrak ohitzen hasi direla uste dut.

- Zenbat denbora daramazu lan honetan?

- 1994ko azaroan hasi nintzen.

- Zaila al da edadekoen artean ekintzak bultzatzea?

- Ez, herritarrek oso harrera ona egin diote orain arte antolatutako guztia. Hasieran edadeko guztiei bidali zitzairen gutun bat gure asmoen berri emanez, bilera egin genuen, eta orduan ere jende askok erantzun zion deiarri.

- Asteasun Lizardi Etxea edukitzeak ere lagunduko du, ezta?

- Bai, apirilean ireki zen, baina lokal bat edukitzea beti da lagungarri. Bertan herritarrak bildu egiten dira, kartatan jokatzeko dute, edota berrikerian igarotzen dute arratsaldea.

- Ekintzen artean zein dute gustokoak edadekoek?

- Osasunari buruzko hitzaldiak gustatzen zaizkie gehien. Izugarriko jendetza bildu izan da horrelakoetan. Ikastaroez ere oso harrera ona izan dute: sukaldaritza, zumea lantzea, makramea...

- Ibilaldiak ere maiz egiten dituzue?

- Tarteka egiten ditugu; asko gustatzen zaie egun pasa egitea. Asteartean adibidez, Bizkaiko kostaldean izan ginen, Getxo inguruan, eta primeran ibili ginen. Baina gauean etxera erretiratzea gustatzen zaie. Gainera, goizean goiz edonora irteerako arazorik ez dute inoiz jartzen; goizeko zazpietan irten behar bada ere, berdin du.

- Zer nolako harremana dute herritarrek zurekin?

- Harreman estua daukat herritarrekin. Nirekin konfidantza handia daukate, eta proposamenik edo arazorik badute, berehala etortzen zaizkit. Oso aberasgarria izan da niretzat; orain aiton-amona pila daukat.

PERTSONAIA EZKUTUA



Beste behin eskaini nahi dizuegu gure lehiaketan parte hartuz sari eder bat irabazteko aukera. Oraingo honetan gure pertsonaia ezkutu asmatzea beti bezain erraza izango zaizuela pentsatzen dugu.

Bestalde, sariak zuetako asko parte hartzera eramango dituela espero dugu: **Andoaingo Babexa kafetegia zortzi lagunentzako merienda paregabea** eskainiko die irabazleari eta honen gonbidatuei. Beraz, beti bezala, lehiaketan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Zorte on!

Gutunak honako helbidera bidali itzazue:

AIURRI Dr. Huizi kalea 15. behea
20140 aANDOAIN

BABEXA
KAFETEGIA
Urtebetetzeko meriendak
KALEBERRIA, 12 - TELF 59 27 52

ANDOAIN

HITZALDIAK

ANDOAIN

Ekainak 14: EAJ-PNVk antolatuta eta "Politika Plazara" hitzaldi egitarauari jarraipena emanez, **Xabier Arzalluzek "Euskal Herria, oraina eta geroa"** izeneko hitzaldia eskainiko du 20.00etan Kultur Etxean.

LARRAUL

Ekainak 17: Depresioari buruzko hitzaldia Pilar Mujikaren eskutik, kultur aretoan 20.30etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

ASTEASU

Ekainak 20: "Indiatik Euskal Herrira motoz", Angel Ortiz eta Nekane Urkiak aurkeztuta Kultur Etxean 20.00etan.

ERAKUSKETAK

ANDOAIN

Ekainak 21-30: Angel Uranga margolariaren margoak Kultur Etxean ikusgai.

IKASTAROAK

ZIZURKIL

Uztailean aerobic ikastaroa 10-12 urteko haurrentzat egunero. Interesatuak deitu Kultur Etxera. Tlf: 69 35 54

LEHIAKETAK

ZIZURKIL

Urkamendi Elkarteak antolatuta Pedro Maria Otaño I. bertso paper lehiaketa:

Lehiaketa Andoain, Billabona-Amasa, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako herritarrei zabaldua dago. Bi maila daude: ume eta gazteak, 16 urtera arte, eta helduak 17 urtetik gorakoak. Gazteen mailako bertso-jartzaileak gutxienez, 6 bertso eta gehienez 10 bidali beharko ditu. Helduen mailan berriz, gutxienez 8 bertso eta 12 gehienez. Partehartzeileek lan bat baino gehiago bidali ditzakete, baina lau lan baino gehiago ez. Bertso berriak izan beharko dute. Gaia librea da. Epaimahaia Urkamendi Elkartearen esku geratzen da. **Lanak bidaltzeko azken eguna: 1996ko uztailaren 30a.** Lanak helbide honetara bidali: Kultur Etxea, Joxe Arregi plaza z/g. 20150 Zizurkil

MERKATU TXIKIA

Klase partikularrak: farmazian lizentziatua. EGAduna, irakasle tituluduna. Tf: 69 03 56. Mapi.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta:

Ekainak 15-16: Panticosako bainuetxera bisita eta ondoren Garmo Negroa ibilaldia (3.051m)

Ekainak 30: Ereño-Ereñozar (448m)-Lekeitioko basoa. 3.30 orduko ibilaldia.

Ekainak 16: Haurrentzako ibilaldia: Jaizkibel (545m).

BILLABONA

Aizkardi mendi taldeak antolatuta:

Ekainak 15-16: Panticosako bainuetxera ibilaldia-Infiernos (3.076m)-Respumosoko aterpea.


BESTE

ASTEASU

"Uztaila jolasean" udaleku irekiak. Izenematea Kultur Etxean.

LARRAUL

Ekainak 22: Kakax, Kokox eta Kirriki pailazoak 16.00etan Kultur Etxean.





LEIZARAN

MARKOZKETA TAILERRA S.L.

**OLEOAK,
MARRAZKIAK,
AKUARELAK,
ESKUZ EGINDAKO
ARGAZKI EUSKARRIAK**

Kaleberria, 40 - 20140 ANDOAIN
Telf.: 59 33 39 - Fax. 30 01 57




Uda txukun asteko neguko
arropak garbi ditzakezue
IZAR TINTATEGIAN

Arrate kalea 3,
59 39 79
ANDOAIN
(Arrate pilotalekuaren ondoan)

- MANTAK
- KORTINAK
- EDREDOIAK
- LARRUA
- ALFONBRAK

Super 55

Super 55 Libreta



Super 55
jendearentzat



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ORDULARI
BITXITEGI

IRULEGI



59 07 57



**ETXEKO
APAINKETAK
ETA
KOLTZOIAK**



59 07 56

Lentzeria,
ohial eta
bainujantziak

*Arrate
Berri*

59 44 83



INAXI
59 03 03

GOZOTEGIA
IZOZTEGIA

Jai zoriontsuak igaro

TOLOSALDEA L.H. INSTITUTUA (Publikoa)



*IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE *LANGILEEK IKASTEN DUTE

INSTITUTU honen bidez lana aurkitu dute:

- 1994.ean 52 ikaslek
- 1995.ean 60 ikaslek

1995.ean INSTITUTU honetan 130 langilek ikastaroak egin dituzte.

*KALITATEA ERREALITATEA DA

HEZKUNTZ DEPARTAMENTUAK babestutako:

- Kalitate Proiektua dugu.
- Ikastetxe pilotoa gara.
- Kalitate Batzordea martxan dago.
- Foro Gipuzkoa XXI-aren aholkularitza dugu.

□ TOLOSALDEAKO HEZKUNTZ PROIEKTU PUBLIKOAREN PARTAIDE ETA BULTZATZAILEA

*JADANIK INSTITUTUAK "LOGSE" SISTEMA EZARRIA DU

- ◆ Tolosaldean, "LOGSE" Batxilergotan esperientzia duen Ikastetxe bakarra.
- ◆ Aurten ZIKLO FORMATIBOAK martxan ipiniko dituena.

ESKEINTZA AKADEMIKOA

- I.E.E. (REM) 14-16 urte
- LOGSE Batxilergoa: **TEKNOLOGIKOA**
LOGSE Batxilergoa: **GIZA-ZIENTZIAK**
- **ZIKLO FORMATIBO** eta **MODULO PROFESIONALAK**: Mekanika, Elektrizitatea eta Informatika
- L.H. balioanizta eta egokitua (Z.I.G.)

AURREMATRIKULA

NON?: **L.H. Institutuan bertan**
Santa Luzia Auzoa, 17 **TOLOSA**
NOIZ? **Maiatzaren 2tik 17ra bitartean**
(bulego orduetan)
Informazio gehiago: ☎ **65.11.47-65.06.64**